

2016ko UZTAILAREN 4ko KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

2016ko uztailearen 4an, astelehenarekin, arratseko zortzietan, Herriko Etxean, Vincent BRU jaunaren lehendakaritzapean, Herriko kontseilua bildu da.

Hor zirenak : Vincent Bru auzapez jauna, Bernadette Jougleux anderea, Christian Devèze jauna, Eliane Noblia anderea, Frédéric Bardin jauna, Pascale Lespade anderea, Didier Irastorza jauna, Eliane Aizpuru anderea, Henri Saint Jean jauna, axuantak, Anne-Marie Pontacq anderea, Vincent Goytino jauna, Christiane Hargain-Despéries anderea, Patrice Dor jauna, Yolande Huguenard anderea, Argitxu Hirigoyen anderea, Jean-Noël Magis jauna, Corinne Othateguy anderea, Peio Etchelecu jauna, Maryannick Hirigoyen anderea, Roger Barbier jauna, Pascal Bourguet jauna, Véronique Larronde anderea, Argitxu Hiriart-Urruty anderea, Philippe Bacardatz jauna, Nathalie Aïçaguerre anderea, Pantxo Michelena jauna, herriko kontseilariak.

Ezin etorriak : Jean-Jacques Lassus jauna, Carmen Gonzalez anderea, Camille Jenvrin jauna, herriko kontseilariak.

Ahalordeak : Jean-Jacques Lassus jaunak Vincent Goytino jaunari, Carmen Gonzalez andereak Véronique Larronde andereari, Camille Jenvrin jaunak Bernadette Jougleux andereari.

1 – Bilkurako idazkariaren izendapena.

Argitxu Hirigoyen anderea **aho batez** bilkurako idazkari bezala izendatua da.

2 – Aitzineko bilkurako bildumaren onarpena.

2016ko ekainaren 6ko bilkuraren bildumari buruzko ohar berezirik ba ote den galdetzen die Auzapez jaunak Herriko kontseiluko kideei.

Nehork ez duenez oharririk egiteko, aitzineko bilkurako bilduma aho batez onartua da.

Bilkurako gai zerrendan aipagai osagarri bat gehitzeko baimena galdegiten dio Auzapez jaunak Herriko kontseiluari : ondarearen kontserbazio arduradunari laneko bizitegia emateari dagokion 2016ko otsailaren 1eko erabakia berehala baliogabetzea eta erabaki horren aldatzea.

Herriko kontseiluko kideek baimena eman dutenez, aipagai hau gai zerrendan gehitua da.

2bis – Ondarearen kontserbazio arduradunari laneko bizitegia : 2016ko otsailaren 1eko erabakia baliogabetzea.

Otsailaren 1eko erabakiaren ondorioz, deipeko okupazio prekario gisako hitzarmen baten bidez eta hilabetean 180 euroko ordainaren truke, Herriko kontseiluak ondarearen kontserbazio arduradunari Arnaga Etxean laneko bizitegi bat eman ziola oroitarazten du Auzapez jaunak. Bizkitartean, ordaina bizitegi zergaren alokatze balioaren gainean kalkulatu izan zen. Ondorioz, Prefeturak afera haren esku utzi ondoan, Zerga Etxeko departamenduko zuzendaritza arloko zerbitzuak, bizitegiaren egoera ikusirik eta esku artean dituen elementuak ikusirik, bizitegiaren

merkatuko alokatze balioa 736 eurokoa dela estimatzen du. Hala, bizitegiaren egiazko alokairu prezioaren %50eko balioa kontuan harturik, bizitegia eskuratzen duenak hilabetean 368 euro ordaindu beharko lituzke. Gauzak honela, Suprefeturak otsailaren leko erabakia berehala baliogabetzea galdegiten du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

Auzapez jaunak hilabeteko ordain berria 368 eurotan finkatzea proposatzen du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

3 – Bideetako eta sare ezberdinetako obrak egiteko, eskaera orridun merkatua : enpresen izendapena.

Magis jaunak aipagai hori hurrengo lau urteetarako eskaera orridun merkatu baten eskuratzeari buruzkoa dela adierazten du. 2013ko apirilaren 16an jakinarazitako orain arteko eskaera orridun merkatua bukatzen ari da. Herriko bideen mantentzea eta modernizatzea bermatzeko egin beharreko obrak kontuan harturik, Herriko Etxeak prozedura egokitua duen kontsulta bat abiatu du. Merkatu hau eskaera orridun hitzarmen oinarri-emaile motakoa da eta bi multzo ditu : 1. multzoa lur berdintze lanak – bide obrak – drainatze lanak eta 2. multzoa sare ezberdinak edo « elektrizitate sareak ». Eskaeraren zenbateko gorenari 1. multzoarendako urtean zergarik gabeko 850 000 eurokoa izanen da eta 2. multzoarendako urtean zergarik gabeko 350 000 eurokoa.

Eskaintza ezberdinak aurkezteko azken epea 2016ko ekainaren 28an, asteartearekin, 12:00etan finkatua izan zen. Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordea bi aldiz bildu da. Gutun-azalak ekainaren 28an ireki zituen, eta, uztailaren 4an, gaur, 14:00etan, merkatua nori eman dion adierazi du.

1. multzoari dagokionez, bi enpresek eskaintza bana aurkeztu dute : SO.BA.MAT/E.C.R.D. enpresak zergarik gabeko 533 290 euroko eskaintza egin du eta DUBOS sozietateak zergarik gabeko 585 560 eurokoa.

2. multzoari dagokionez, lau enpresek eskaintzak aurkeztu dituzte : E.T.P.M enpresak zergarik gabeko 164 238.90 euroko eskaintza egin du, S.D.E.L enpresak zergarik gabeko 210 898.30 eurokoa, COREBA enpresak zergarik gabeko 209 337 eurokoa eta FIRALP multzoak zergarik gabeko 234 209.60 eurokoa.

Merkatuaren kariatara adierazitako azterketa irizpideetan oinarritzen bagara, prezioa da berme bakarra. Hala, 1. multzoarendako, SO.BA.MAT/E.C.R.D. enpresaren zergarik gabeko 533 290 euroko eskaintza, eta, 2. multzoarendako, E.T.P.M enpresaren zergarik gabeko 164 238.90 euroko eskaintza onartzea proposatzen da.

Gaur, Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordean hala entzunik, eskaeraren zenbateko gorenari ez dela lau aldiz 850 000 eurokoa baizik eta lau urterendako dela adierazten du Bacardatz jaunak.

Eskaeraren zenbateko gorenari lau urtekoa dela errana izan dela zehazten du Bardin jaunak.

Bacardatz jaunak gaizki ulertu zuen eta barkamena galdegiten du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

4 – « Herri barnearen » antolaketa, 3. tartea : 1. gehigarria.

Aipagai hori Auzapez jaunari herri barnearen antolaketarako gehigarri baten izenpetzeko baimena emateari buruzkoa dela adierazten du Magis jaunak. 2015eko azaroaren 30eko erabakiaren ondorioz, obra horiek burutzea erabaki zela oroitarazten du. Obrak tarte finko batean (elizako plaza) eta baldintzapeko bi tarteetan (Chantecler aparkalekua eta elizako plaza) egitekoak ziren. Tarte guzti horiek indartu egin dira.

Obralekuko bilkuren denboran, ekintza osagarriak egitea galdatu da :

- Elizako argien aldatzea. Tratuaren parte gisa, argi proiektagailuen ezartzea aurreikusia izan zen. Zerbitzu hau tratutik kendua izan da eta elizaren berritzeko obretara transferitu da. Zorroak baizik ez dira igurikan utzi.
- Edateko on diren uren sare kantitateen egokitzapena.
- Chantecler aparkalekuaren heinean, uren bereizteko sarearen hobetzea.
- Elizaren giblean den haizeztapen lauzaren suntsitzea. Hala, berokuntza manera hori kendu eta urte hondarrean ezarriko den berogailu elektriko batekin ordezkatzeko aukera izanen da.
- Arkitektura eta estetika mailako hobekuntza ezberdinak (harrizko koroaduren ezartzea, eskailera baten konponketa, EDF kutxa tipiak murru batean sartzeta...).
- Tratuaren parte gisa hastapenean aurreikusiak izan ziren medailoien ordeztasun, harria imitatzen duten eta arraxinarekin egin markatze lerroekin, lekuen zedarriztatzea.
- Mugikortasun urriko pertsonak sar-ateratzeko bide baten egitea.
- Altzarien kalitatearen eta altzari motaren egokitzapena.
- Bistalekuaren heinean, bazter-babes langa baten eta gertakari liburu baten gehitzea.

Gainera, Herriko Etxearen karrikako sartzean eta Boudon-en aitzinean, harriek jauzi egin duten lekuan lauzadaren konpontzea, gehigarri horren parte da. Harrien kentzearen eta lauzadaren berriz egitearen (egitura gehi ingurua) ardura hartzen duen enpresarekin negoziazioak izan dira; Herriko Etxeak arraxina baizik ez du bere gain hartzen.

Balio emendatze horien ordainez, bistalekuko murraren berritzeko obrei lotutako balio apaltzeak badira (hastapenean pentsatutako emokaduraren ordeztasun, emaitza ona ematen duen karcher sistema bidezko garbiketara bat egin izan da), eta eginak izan ez diren edo kantitate tipikoan egin diren beste obra batzuk.

Balio apaltzeak 56 180.80 eurokoak direnez eta balio emendatzeak 58 196.70 eurokoak, merkatuari egin gastu gehigarriak 2 015.90 eurokoak dira, hau da, merkatuaren % 0.35ekoak.

Haizeztapen lauzaren suntsitzea istripua ala nahitara egindakoa izan den galdetzen du Bacardatz jaunak.

Nahitara egindakoa dela eta ez dela nehondik ere istripua izan ihardesten dio Jogleux andreak. Elizaren berotzeko sistema zaharkitua zen, galtze anitzekin, eta, presbiterioaren aldean, berogintza galdara bat, dupa bat eta elizara heltzeko goratutako pasabide bat baziren. Pasabide hau kendua izan da, eta, horren ordeztasun, berogailu elektriko bat ezarriko da, dilindako argiekin hain segur.

Aitzineko sistema ongi ibiltzen zela azpimarratzen du Bacardatz jaunak. Lan horiek ez ziren hastapeneko merkatuan aurreikusi, eta, horregatik, harriturik agertzen da.

Bere udal taldea eliza nola berotu galdezka ari izan dela gehitzen du Auzapez jaunak. Matveieff andreak, Herriko Etxea laguntzen duen arkitektoak, oraingo haize berogailuak elizan

kutsadura eta belztasuna sortzen zuela estimatu du. Elizaren barnea berritzen baldin bada, errautsa, zikinak eta lertzoak eragiten dituen haizeztapen sistema hori kendu behar da. Oraingo berokuntza sistema energia fosilek elikatzen dute eta sistema elektriko baten plantan ezartzea hobeki da.

Energia fosila kentzea arras ongi dela erraten du Bacardatz jaunak. Baina, leku berean, egurrarekin ibiltzen den berogintza galdara bat zergatik ez den ezarri eta lur azpitik pasatzen zen aireztatzeko hodiak zergatik ez diren atxiki galdegiten du. Lauzadaren haustearen probetxua zein den ez du argi.

Auzapez jaunak Matveieff anderearen baitan konfiantza osoa duela ihardesten dio. Izan ere, azken horrek halako galderei erantzuteko usaia badu eta aditu baten aholkuak jarraitzen ditu.

Obra batzorde denboran, harriak kendu diren tarteetan lauzada berriz osatzeko, Herriko Etxearentzat gainkosturik ez zela izanen errana izan zela adierazten du Bacardatz jaunak. Hastapeneko azterketan aurreikusi ez zen arazo tekniko bat edo lauzatzeko momentuan gertatu makur bat ote den galdegiten du. Elkargoak ez lituzke horren ondorioak pairatu behar.

Diseinatze denboran eta segurki eraikitze denboran ere arazo bat izan zela uste du Magis jaunak. Merkatuari dagokionez, obra mota horiendako, ez da hamar urteko garantiarik, baizik eta bi urtekoa. Bi urteak iragan dira. Enpresak onartzen du arazoak badirela. Izan ere, obra horien kariatara, gutienez bi aldiz esku hartu behar izan du. Horrek arazoak sortzen ditu. Lanaldi oro, errepidea moztu behar da. Emaitzaren eta kalitatearen aldetik arraxinarekin nahi dena erdiesten denez, Herriko Etxeak sistema hori hautatu du. Enpresa egituraren konpontzeko ados dela oroitarazten du. Arraxinaren kostua elkargoaren gain da.

Herriko Etxearen heinean obrak ongi eginak izan direla, baina, Boudon-en heinean deus ez dela eginik gehitzen du Aïçaguerre andereak.

Boudon-en heinean obren abiatzeko, Herriko Etxeak elizako obrak bururatuak izan daitezen igurikatzen zuela ihardesten dio Magis jaunak.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

5 – Karabanendako gunearen antolaketa : 1. gehigarria

Aipagai hori karabanendako gunearen antolaketarako gehigarri bati buruzkoa dela adierazten du Irastorza jaunak.

Alde batetik, zerbitzu gune horretan, erosotasuna eta erakargarritasuna emendatzeko. Horretarako, honako zerbitzu baliabideak gehituko lirateke :

- Elektrizitatearendako lau konexio-borne gehiago (hastapeneko merkatuan hiru aurreikusten ziren), libre den leku kopuruaren arabera,
- bi Wi-Fi gune,
- libre diren lekuen adierazteko afixatze taula elektriko bat,
- mugikortasun urriko pertsonen sartze erraztasuna hobetzeko, oinezkoen bide egokitu bat eta aparkatzeko bi leku,
- erdi lurperatutako kontainerren ezartzea,
- etxeko hondarkinendako ateko kodea duen ontzi bat.

Bestalde, 2016ko maiatzaren 17ko bilkura publikoan tokiko bizitzaileek egin galdeari ihardesteko, hastapeneko hesia taula gogor eta estalgarri batekin aldatzea erabakia izan da.

Erabaki horien ondorioz, sareko obra gehigarriak bideratu behar izan dira (sare elektriko linealak, potentzia elektrikoaren arabera egokitutako kutxa ttipiaren aldaketa, sare berriak), azpiko oinarri obrak, kutxa metalikoak (lurperatutako kontainerrak). Horrek prezio berriak eta gainkostuak eragin ditu. Hortaz, gehigarri baten bitartez, multzo bakoitzeko kostuak zuzen ezartzea komeni da.

1. multzoarendako, bideetako eta sare ezberdinetako obrak SO.BA.MAT sozietatearekin, hastapeneko merkatua zergarik gabeko 272 318.21 eurokoa zen, zergarik gabeko 23 263.54 euroko gehituko dira, hau da, orotara, zergarik gabeko 295 581.75 eurokoa izanen dela.

2. multzoarendako, berdeguneetako obrak Lafitte paysage sozietatearekin, hastapeneko merkatua zergarik gabeko 53 536 eurokoa zen, zergarik gabeko 21 038.46 euroko gehituko dira, hau da, orotara, zergarik gabeko 74 574.46 eurokoa izanen dela.

3. multzoarendako, ekipamenduetako obrak Urbaflux sozietatearekin, hastapeneko merkatua zergarik gabeko 58 880.40 eurokoa zen, zergarik gabeko 18 980.96 euroko gehituko dira, hau da, orotara, zergarik gabeko 78 022.86 eurokoa izanen dela.

Hastapeneko merkatuaren zergarik gabeko zenbatekoa orotara 384 734.61 eurokoa zen, gehigarria zergarik gabeko 63 282.96 eurokoa da, hau da, ororen buru, orotara, merkatua zergarik gabeko 448 017.57 eurokoa da.

2016ko ekainaren 28an, honi buruzko erabakia eman dezan, Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordeari datu horiek aurkeztu zitzaizkiola oroitarazten du Irastorza jaunak.

Elektrizitatearendako konexio-borne gehigarrien banakako prezioa hastapeneko merkatuarekin ezberdina dela ohartarazten du Bacardatz jaunak. Enpresak konexio-bornea eta horren loturaren kostua fakturatu du, eta, kostu horrek ez du hastapenean merkatuan aurreikusiak ziren lehen hiru konexio-borneen prezioarekin zerikusirik. Gainkostu horren arrazoia zein den galdatzen du.

Gainkostua potentziaren eta lau konexio-borneen loturaren ondorioa dela ihardesten dio Irastorza jaunak.

Bacardatz jaunak loturarendako gainkostuaren zenbatekoaren berri jakin nahi du.

Instalazioa prezio urdinetik prezio horira iraganen dela ihardesten dio Irastorza jaunak. Izan ere, elektrizitate kopuru handiagoaren beharra bada eta taula gehigarriak 10 000 euroko kostua du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

6 – Autobus geltokiaren antolaketa : polizia isunen kontu, departamenduari diru laguntza eskaera baten egitea.

Aipagai hori, kolegioko eta eskoletako ikasleen joan-jinen segurtasuna bermatzeko egin beharreko antolaketa lanendako, polizia isunen kontu, departamenduari diru laguntza eskaera baten egiteari buruzkoa dela adierazten du Magis jaunak. Polizia isunak urtero Frantziako estatuak elkargoei ordaintzen dizkien emaitzak direla oroitarazten du. Hala, azken horiek errepideetako segurtasuna bermatzeko obrak diruztatzen ahal dituzte. 10 000 biztanle baino guttiagoko herrien kasuan, emaitza departamenduko Kontseilu Orokorrak eskaintzen du. Emaitza arauak finkatzen ditu ere. Pirinio Atlantikoetako departamenduaren kasuan, hautagarritasun baldintzetarik batzuk autobus aterpeen, autobus geldilekuen, aparkatze lekuen eta oinezkoen bideen eraikitzea dira. Autobus geltokiaren kontu, gisa horretako obrak egin behar dira : autobus aterpe baten eraikitzea, geltokiko kai baten eraikitzea, kolegioko eta eskoletako ikasleek autobus aterpera baldintza onetan hel

daitezen oinezkoen bideen antolatzea. Herriko kontseiluko kide guztiei helarazitako obren deskribapen txosten batek zergarik gabeko 28 000 euro inguruko kostua duten lanak aurkezten ditu. Zenbateko hori gutietsia da. Izan ere, autobus aterpetik hurbil egin beharreko antolamendu lanak gehitu behar zaizkio. Hala, orotara, obren zenbatekoa zergarik gabeko 40 000 euro ingurukoa izanen da.

Baliabide hau interesgarria dela zehazten du Auzapez jaunak. Izan ere, polizia isunen mozkina ez du estatuak osoki bere gain hartzen, partez lekuko elkargoei ematen zaie, eta, momentuz, departamenduek banatzen dute. Eskolen ondoko aparkalekuendako ere emaitza hori jaso daitekeela gehitzen du.

Hiriart-Urruty andereak aparkatzeko lekuen kopurua zein den galdegiten du.

Hautatutako proiektuaren bertsioan, aparkatzeko 70 leku inguru ezartzea aurreikusia dela ihardesten dio Magis jaunak.

Hiriart-Urruty andereak gaur egun zenbat leku badiren galdegiten dio.

Magis jaunak 70 eta 80 leku artean badirela ihardesten dio.

Karabanendako gunearen zabaltzeak lekuak libratuko dituela zehazten du Auzapez jaunak. Egun osoan herrian egoten diren autobusak autobus geltokian aparkatuko direla gehitzen du.

Lurreko seinaletikarekin, aparkatzeko leku kopurua 80 ingurukoa dela gehitzen du Magis jaunak.

Obrak 2016 urtean egitea aurreikusten ote den galdegiten du Michelena jaunak.

Auzapez jaunak baietz ihardesten dio. Obrak 2016ko udazkenean burutuko dira. Segurki txosten hori heldu den urriko batzorde iraunkorrean onartuko dutela gehitzen du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

7 – 2016-2017ko eskola garraioen eskumenaren ordezkari

2015eko maiatzaren 25eko erabakiaren ondorioz, lehen mailako Botere Antolatzailea (A.O.1.) den Pirinio Atlantikoetako departamenduak eskola garraioen eskumena « bigarren mailako Botere Antolatzailea » (A.O.2.) den Kanboko Herriko Etxearen esku utzi duela oroitarazten du Noblia andereak. Eskumen eskualdaketak urte bateko iraupena du, eta, hala, 2015eko uztailaren 2an bururatzen da. 2015eko uztailaren 20an, Herriko kontseiluak esku uzte horren aldeko erabakia hartu zuen.

2016ko martxoaren 11ko gutun baten bidez, Kontseilu Orokorrak Kanboko herriari 2016-2017ko ikasturte sartzean ere eskumen hori bere ardurapean utz zezakeen galdatu zion. 2016ko martxoaren 24ko gutun baten bidez, Kanboko Herriko Etxeak ordezkari horren mantentzeko nahia berretsi zion.

2016ko ekainaren 17ko gutun baten bidez, Kontseilu Orokorrak Kanboko herriari hitzarmen proiektua helarazi zion. Urte bateko iraupena du, eta, 2016ko abuztuaren 1etik 2017 uztailera iraunen du. Lurraldean eskola garraioen ardura duen boterearen eta A.O.2.-aren artean gutunak idatziz, eta, hala, denen artean adosturik, urtean bi aldiz berritzen ahalko da.

Kanboko herrian, A.O.2aren esku utzitako zerbitzuak, hurrengo bi baldintzapean baliatuak dira :

1. 2001 urtetik plantan ezarritako eta herriak zuzenki kudeatzen duen konpainia baten kasuan, Herriko Etxeak berak (herriko autobusa),
2. Herriko Etxearekin 2015 urtean adostu duten merkatu publikoaren jabe den Miral autobusen konpainiak.

2015eko abuztuaren 7ko NOTRe legeak eskola garraioen arloko eskumena eskualdearen esku uzten duela gehitzen du Auzapez jaunak. Iduriz, Akitania Berria eskualdeak ez du eskumena bere gain hartzeko presa handirik. Hortaz, momentuz, oraingo baliabidea berritua da. Urte baten buruan, eskualdeak eskola garraioei lotutako eskumena zuzenki bere gain hartu eta bete nahi baldin badu, erabaki berri bat hartu beharko da. 2016-2017ko ikasturtearendako, egoerak lehen bezala berdin segituko du.

Hiriart-Urruty andereak eskola garraioa ordaindu beharko den galdegiten du.

Auzapez jaunak aurtengo baldintzak orain arteko berak izanen direla ihardesten dio.

Hiriart-Urruty andereak baldintza horiek Kanbo barneko garraioarendako ote diren galdegiten du.

Batzuetan autobusak hutsik ibiltzen baitira, familiek gastuetan parte hartze ttipi bat ordaindu beharko dutela ihardesten dio Auzapez jaunak. Pertsonak ordaindu gabe izena ematen dutelarik, ez dute bortxaz zerbitzu horren beharra dutelako izena ematen, baina, badaezpada, urtean behin, zerbitzua behar izanez gero, hori baliatu ahal izateko. Gauzak honela, departamenduko zerbitzuek izan daitekeen pertsona kopuru teorikoaren gainean autobusak aurreikusten dituzte. Pertsonak arduratsu izan daitezten, beste departamendu anitzetan egiten den ber, familiek doi bat ordain dezatela erabakia izan da. Hala, eskola garraioak erabiliko dituzten haurrek bakarrik izena emateko eta autobus kopurua errealtatearekin egokitzeko manera aurreikusten da. Departamendu mailako eztabaida da hau.

Orain arte garraioa ordaintzen ote zen galdegiten du Hiriart-Urruty andereak.

Auzapez jaunak ordaintzen den lehen urtea dela ihardesten dio.

Lehen mailako ikasle batendako 35 euroko herriko parte hartzea eta bigarren mailako ikasle batendako 70 euroko herriko parte hartzea zeren araberakoak ote diren galdegiten du Hiriart-Urruty andereak.

Herriko Etxeak departamenduari lehen mailako haur bakoitzeko 35 euro eta kolegioko ikasle bakoitzeko 70 euro ematen dizkiola ihardesten dio Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak. Badu bost edo sei urte hala dela.

Eskola garraioaren funtzioa betetzen duenez, elkargoak herriko autobusarendako departamenduaren laguntza jaso duela gehitzen du Auzapez jaunak.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

8 – Diruzaintza linea baten irekitzea.

2016ko martxo hondarrean, hastapeneko aurrekontuaren bozkatze denboran, Herriko Etxea diruzaintza linea baten irekitzeko printzipioaren alde agertu zela oroitarazten du Devèze jaunak. Baliabide hori 750 000 euroko heinean ezarri zen, 495 000 euroko mailegu baten aldean, irabazien eta gastuen orekatzeko asmoarekin, eta, aitzineko urtean hartutako engaiamenduak ikusirik, aipatutako mailegu horren hartzeko beharrik ez izateko itxaropenarekin, bistan dena.

Hiru erakunderi eskatu zaie : Caisse d'Épargne, Banque Postale eta Crédit Agricole. Azken honek ez du erantzun, beste biek bai.

Eskaintako interes tasei dagokionez, Banque Postale eta Caisse d'Épargne bankuek EONIA atxiki dute, lehenak % 0.790eko mozkinarekin eta bigarrenak % 1.50eko mozkinarekin. EONIA bankuarteko interes tasa bat da, E+1 egunean dirua itzultzea aurreikusten duena. Bi finantza organismoek erabilpen iraupena bera eskaintzen dute, hau da, 12 hilabetekoa. Hala, Herriko Etxeak kreditua bi finantza aldietan har dezake, progresiboki. Bi kasuetan, engaiamendu komisioa eskatu diruzaintza linearen zenbatekoaren % 0,10ekoa da, hau da, 750 eurokoa. Ez erabilpen komisioa % 0,10ekoa da Banque Postale bankuarekin eta % 0.30ekoa Caisse d'Épargne bankuarekin.

Azkenik, Banque Postale bankuarekin 10 000 euroko zenbatekoa eskatu behar da gutienez, Caisse d'Épargne bankuak ez duelarik gutienekorik galdatzen. Alabaina, 750 000 euroko zenbatekoa kontuan harturik, Herriko Etxeak diru horren beharra baldin badu, argi da 10 000 eurotik gorako kreditua hartuko duela. Irizpide horrek ez du beraz erakunde bat ala bestearen hautatzeko balio.

Ororen buru, Banque Postale bankuaren proposamenak egokiagoa iduri du, jakinez eta mobilizazioa elkargoaren beharren arabera bi finantza aldietan eginen dela.

Gaur egun bankuarteko interes tasa negatiboa dela zehazten du Devèze jaunak. Gaur egun, % - 0.29koa da. Herriko Etxeak mobilizatutako zenbatekoaren % 0.79 bere gain hartuko duela erran nahi du horrek.

Herriko Etxeak halako finantzamendu moldea eskatzen duen lehen aldia da. Izan ere, aurtun ohiz kanpoko diru engaiamenduak badira. Hala ere, hurrengo finantza aldiko diruzaintza arloko aurreikuspenek diru horren itzultzeko parada izanen dela adierazten dute.

Michelena jaunak txostena osatzeko gasturik ba ote den galdegiten du.

Txostena osatzeko gastuak engaiamendu komisioaren heinekoak direla ihardesten dio Devèze jaunak, hau da, 750 eurokoak.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

9 – Jatetxe txartelak : zerbitzu hornitzailearen izendapena.

2016ko ekainaren 06ko erabakiaren ondorioz, Herriko kontseiluak herriko langileendako jatetxe txartelen emateko baliabide baten plantan ezartzea onartu duela oroitarazten du Jougleux andereak. Baldintzak honakoak dira :

- urtean gehienez 100 jatetxe txarteleko oinarri finkoa,
- jatetxe txartel bakoitzaren balioa 6 eurokoa da, eta, jatetxe txartel bakoitzeko, Kanboko Herriko Etxearen parte hartzea % 60koa da.

Horretarako, 2016ko ekainaren 7an, prozedura egokitua duen kontsulta abiatu du Herriko Etxeak. Zerbitzu hornitzailearen hautatzea da xedea. Hor gainean eta azpian aipatutako irizpideen arabera eginen da hautaketa :

- hartzaileak : 56 langile,
- 2016ko urriaren 1etik goiti indarrean izanen da, 2016ko laugarren hiruhilekoan arabera jaso beharreko txartelak banatuz (25 jatetxe txartel),
- urte bat eta hiru hilabeteko zerbitzu iraupena, 2017ko abenduaren 31 arte.

Zerbitzu horren eskaintzeko aurrekontu orokorra zergarik gabeko 45 000 eurokoa da, hitzarmen oinarri-emailearen iraupen osoarendako, hots, 2017ko abenduaren 31 arte.

Eskaintza ezberdinen aurkezteko epea 2016ko ekainaren 28an, asteartearekin, 12:00etan, finkatua izan zen.

2016ko ekainaren 28an, 14:00etan, Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordearen bilkura denboran, gutun-azalak ireki ziren.

Prozedura Egokituak dituzten Merkatuen batzordea egun hartan bildu zen, 14:00etan. Eskaintza ezberdinen analisisa txostena entzun ondoan, zerbitzu hornitzailea izendatu behar zuen.

Bi zerbitzu hornitzailek eskaintza deialdiari arropostu eman zioten : UP taldeak « Jatetxe txekeendako » eta Edenred taldeak « Jatetxe txartelendako ».

Kontsulta araudian aipatutako irizpideei jarraikiz, ekonomikoki merkeena den eskaintzaren alde egitea proposatzen zaio Herriko kontseiluari. Hala, UP taldea hautatua izan da, « Jatetxe txekeendako ».

Jatetxe txartelen banatzea herriko langileendako gizarte neurri arras garrantzitsua dela zehazten du Auzapez jaunak. Izan ere, elkargoak bere gain hartzen duen baliabide honi esker, herriko langileek urtean 360 euroko jasoko dituzte. Herriko Jendarte Laguntza Zentroak ere zerbitzu hornitzaileari buruzko erabakia hartu behar duela oroitarazten du.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

10 – Langileak : sasoiko lan kontratuen luzapena.

2016ko martxoaren 21eko erabakiaren ondorioz, Herriko kontseiluak Donostia 2016en kariatara iragan zen Arnagako arte garaikideko erakusketaren zaintzeko lau sasoiari kontratatzea deliberatu zuela oroitarazten du Auzapez jaunak. Hastapen batean, erakusketa irail hondarrean bururatu behar zen, baina, azkenean, artisten baimenarekin bistan dena, 2016ko urriaren 16a arte luzatzea erabakia izan da.

Beraz, sasoiari kontratu horiek hamabost egunez luzatzea aurreikusi behar da, hau da, 2016ko urriaren 1etik 16ra. Herriko Etxeak lan horren egiteko hautagaiak aurkitzea espero du. Izan ere, garai horretan, ikasleak berriz ere ikasten hasiak dira.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

Aitzineko herriko kontseilu denboran, elkarteak lan sariak Herriko Etxeari itzuliko zizkiola errana izan zela adierazten du Aïçaguerre andereak. Elkartea « Cambo événements » edo « Echanges Pays Basque » ote den galdegiten du.

Kanboarrek zuzentzen duten « Cambo événements » dela ihardesten dio Auzapez jaunak. Elkarte horrek du dirua kudeatzen. Enpresen eta norbanakoen emaitza guztiak eta diru laguntza guztiak elkarte honi emanak zaizkio. Bihar goizean, finantzari buruzko puntua egitera jinen dira elkarteko kideak. Akitaniako eskualdeak ez du diru laguntzarik eman, Pirinio Atlantikoetako departamenduak 7 000 euroko laguntza eman du, eta Kanboko herriak 10 000 eurokoa.

Kanboko herriak elkartearekin hitzarmenik izenpetu ez duela ohartarazten du Aïçaguerre andereak.

Kanboko herriak kontratatzen duenez, ez dela hitzarmenik behar ihardesten dio Auzapez jaunak.

Auzapez jaunak bozkatzera deitzen du.

Aho batez onartua da.

11 – Auzapezaren erabakien berri.

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera eta 2014ko apirilaren 7ko Herriko kontseiluaren erabakiaren arabera, honakoaren berri emana da :

1º) 2016ko maiatzaren 21etik ekainaren 17ra, Hirian erosteko lehentasunari lotutako ezezko erabakiak :

- Lursaila : 0
- Etxea : 3
- Apartamentua : 3
- Sotoa : 0

2º) 2016ko maiatzaren 21etik ekainaren 17ra, hilerriari eman eta berriz hartu kontzesioei buruzko erabakiak :

- 15 urteko kontzesioen erostea : 1
- 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobiak) : 0
- 30 urteko kontzesioen erostea (+ kolunbarioak) : 1
- 15 urteko kontzesioen berritzea : 0
- 30 urteko kontzesioen berritzea (hilobiak) : 0
- Lursailen berriz hartzea, urrik : 0

12 – Bestelako aipagaiak.

- Arte garaikideko erakusketaren estreinaldian, nahiz eta Eneko Goia Donostiako Auzapez jauna ez hor izan, hirurehun pertsona baino gehiago egon zirela oroitarazten du Auzapez jaunak. Kargudun batzuk eta bereziki arte garaikideko adituak eta amaturrak hor izan ziren. 2016ko urriaren 16a arte iraunen duen egitasmo ederra aurkeztu du Kanboko herriak.
- Genay Fagalde andereak, elizako plazan eginak izan diren lanez arrunt satisfos dela errateaz gainera, haren etxeko lurretan aurkitua izan zen XVII. edo XVIII. mendeko disko formako oroitarri bat Kanboko herriari ematea erabaki duela jakinarazten du Auzapez jaunak. Oroitarria elizaren inguruan jarriko da. Elizako soropilean oroitarria jarri duen Jogleux andeari goresmenak emateko aukeraz baliatzen da. Elizako plazako obren denboran eta lehenago ere aurkitutako eta Durieu andereak Kanboko herriari emandako hobi harria jarri ditu Jogleux andereak.
- Siriaren harrera errazteko, Jogleux andereak beste batzuekin egiten duen lanagatik, eskerrak ematen dizkio Auzapez jaunak. Emanak zaizkien harrera baldintzez arras satisfos direla erraten dute siriarrak. Baina, ardura bat da eta Jogleux andereak lotura lan hori egiten du. Azkenean, Alhatem jaunak egonaldi baimena jaso du. Orain, gida baimena bali egin behar du, eta, gero, lana aurkitzen ahalko du. Lanean hasiko direlarik, gehiegi lagundu behar

ez direlako, Herriko Etxeak alokairu progresibo baten gaia landuko duela oroitarazten du Auzapez jaunak.

- Auzapez jaunak Herriko kontseiluari hurrengo hauteskunde egunen berri ematen dio :
Presidente bozak : 2017ko apirilaren 23an eta maiatzaren 7an (bozketa bulegoak 20:00ak arte irekiak)

Diputatu bozak : 2017ko ekainaren 11n eta 18an

Senatuko bozak : 2017ko irailaren 24an, igandearekin

Presidente bozetara eskuineko primarioak : 2016ko azaroaren 20an eta 27an. Honi buruz, Kanboko herriak Herriko Etxea eskuineko eta zentroko primarioetarako bozka lekua izan dadin onartu duela gehitzen du. Bistan dena, urtarrilean ezkerren aldetik halako galdea baldin bada, Kanboko herriak gauza bera egingen du, leku berean eta baldintza beretan. Kanboko herriak ez ditu primario horiek antolatzen, baina, egoitza, antolaketaren esku ezarriko du.

- Arnagako erakusketaren estreinaldian hirurehun pertsonendako egin harreraren kostua zein izan den jakin nahi du Hiriart-Urruty andereak.

Kostua zein izan den ez dakiela eta bihar « Cambo événements » elkartearekin puntua egingen dela ihardesten dio Auzapez jaunak.

- Herriko aldizkaria noiz argitaratuko ote den galdegiten du Bacardatz jaunak.

Aldizkaria aste honetan bururatuko dutela eta uztailaren 15ean inprimatuko dutela ihardesten dio Auzapez jaunak. Hala, herri aldizkaria Baionako Besten aitzineko astean banatuko da.

Eremu urdineko diskoak herriko aldizkariarekin batera banatzea aurreikusia izan zela adierazten du Bacardatz jaunak. Gauzak honela, uste du eremu urdina ez dela uztailaren 1ean plantan ezarriko.

Eremu urdinaren plantan ezartzea abuztuaren 1era gibelatua dela eta Sud-Ouest kazetan horren berri emanen duen artikulu bat agertuko dela ihardesten dio Jouglex andereak.

- Zesarren Zelaiko obren bururapen bilkuraren egun zehatza jakin nahi du Bacardatz jaunak.

Gai hau aipatua izan zela uste zuela ihardesten dio Devèze jaunak. Laster aipagai hori agortuko dela espero du. Herriko kontseilua aitzin, HEA eta ECRD bulegoak deitu ditu. Bi obren bururapen bilkura egin ziren. Lehena apirilean iragan zen eta bigarrena joan den astelehenean. Lehen bilkuran, enpresak hodi nagusia balidatu zuen, baina, konpondu beharreko hiru lotura baziren. Ustez, guzti hori ECRD eta HEA bulegoen eskaeraren arabera eginga izan da. Joan den asteleheneko bigarren bilkuran, apalena den lotura gunean, altxatze genetiko hurbilena den lekuan, euri urekin sortu putzu bat badela ohartu dira. Hala ere, errepidearen konpontzearen arazoa hor da, bereziki errepidea mundrunatzearena. Obra horiek uztailean egingen dira.

Gaineratekoentzat, ordezkariak jaso duenak, hau da, SUEZ enpresak, euria delarik, arazoa non dagoen ulertzeko, kamera bidezko ikuskatzea egin behar du. Tokiko bizitzaileak sareari loturik ez diren neurrian, sareari lotzeko guneei edo behin-behineko tanpoiei buruz ohar berdina egin genezake. Operazioa beheko partean egiten denez, ur sartzeak hoditeriaren gainean gertatzen ote diren jakin nahi dute enpresek. Zernahi gisaz, ez da bidea berriz ireki

beharko, operazioa ke testarekin egiten baldin bada behintzat. Izan ere, hoditeriaren barnetik lan egiteko aukera badago.

Aroa lagun baldin bada, operazio horren egiteko egunak uztailaren 24an eta 25ean aurreikusiak direla gehitzen du Magis jaunak. Enpresaren esku hartze egitarauaren arabera, egun egokiak dira, enpresak beste leku batzuetan ere estali behar baitu.

Lanak bukatu ondoan, tokiko bizitzaileek sareari lot daitezkeela azaltzen dien gutun bat jasoko ote duten galdegiten du Bacardatz jaunak. Estaltze lanak iraila bukaeran finkatu zirela oroitarazten du.

Magis jaunaren bitartez, obrak iraila hondarrean bururatuak izanen direla espero du Devèze jaunak. Tokiko bizitzaileek gutun bat jasoko dute.

Hoditeriaren zabaltzean, zerbitzua ibiltzen hasteko, Auzapezaren erabakia beharrezkoa dela gehitzen du Magis jaunak. Horren ondotik, herritarrak sareari lotzen ahalko dira.

- Geldilekuko bidean, jende ibiltarienak diren hamabost bat karabana finkatu direla adierazten du Hiriart-Urruty andereak. Herriko Etxearen baimena jaso ote duten galdegiten du. Aurten, iaz ez bezala, makur anitz bada. Tokiko bizitzaile batzuk kexatu direla uste du.

Karabanak hor finkatu direla berant jakin duela ihardesten dio Auzapez jaunak. Candas jaunari hara joateko galdegin dio, hura izan baitzen negoziatu zuena. Bainuetxearena den lur pribatu bat da. Auzapez jaunak bainuetxeko zuzendariari gutun bat igorriko dio, azken horrek bazterrak zaintzeko eta alor hori hesteko. Jendarmeak goizean handik pasa direla gehitzen du.

Herri Elkargoak zikinontzi kontainerrak eskura eman ote dituen galdegiten du Hiriart-Urruty andereak.

Elkargoak hala galdeginik, kontainer hori Herri Elkargoak kokatu duela ihardesten dio Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak.

- Frantziako Eskubaloi Federazioak Kanboko nesken eskubaloi klubari zilarrezko labela eman diola jakinarazten die Irastorza jaunak Herriko kontseiluko kideei. Label hau bere kirol politikari esker lortu du klubak. Hezitzaileek erregulariki formakuntzak egiten dituzte eta noizbehinka eskertu behar lirateke. Izan ere, Kanboko herriak pertsona horiek ahanzteko joera du.
- Michelena jauna karabanendako gunearen bisitatzera joan da eta lekuen ikustera jina zen ur-onetako ibiltari bat kausitu du han. Pertsona hura guneko sartzea hain hertsia izateaz harritu da, bihurgune bat badelarik gainera, eta, karabana batzuk hortik ezin pasatuz ibiliko direla erran du. Edukiontzi bikoitza duten lau zikinontzi handi badira han, eta, horiek irekitzean, botilak, sukaldeko zikinontziak, kartoiak badirela ohartu da, nehongo bereizketarik egiten ez dela, hots. Lau kontainer badirenez, etxeko zikinendako bi eta berinendako bat izatea ontsa litzateke.

Kurista hori 10 euroko prezioaren aurka agertu da ; hiru astez hor egoten diren ur-onetako ibiltariendako 210 euro balio duela dio. Beste ur hiri batzuetan, Barbotan les Thermes herrian adibidez, kuristendako prezio berezi bat aplikatzen da. Karabanen bidaiatzen dutenendako, hiru asteko prezioa 100 eurokoa da han. Magis jaunak Michelena jaunaren erranak baieztatzen ahal ditu, momentu berean, karabanendako gunera jin baita.

Hondarkinen bereiztea aurreikusia dela ihardesten dio Irastorza jaunak. Herri Elkargoak bereizketa plantan ezarriko du. Orain ezarriak diren kontainerrak behin-behinekoak baizik ez dira. Karabanen bidaiatzen dutenek bakarrik erabiltzeko gisan, behin betiko kontainerrak kode batekin irekiko dira.

Prezioari dagokionez, Kanboko herriak beste herrietan finkatutako prezioei buruzko argibideak galdegin ditu. Barbotan herria ontsa ezagutzen du. Baina, han, ez da Kanbon bezalako karabanendako gune berezi bat egina izan. Karabanendako aparkaleku bat da. Aparkaleku hori aintzira bazterrean kokatua da eta prezio finkoa 150 eurokoa da.

Kanbon, prezio finkoa 10 eurokoa izanen da, eta, ura, elektrizitatea, wifi-a eta karabana bakoitzarendako 0,50 euroko egonaldi zerga barnebilduko ditu. Jakin behar da baita ere, kurista horiek, apartamendu bat hartzen duten pertsonak bezala, hautatu duten asurantzaren arabera, aparkatze gastuen dirua itzul diezaieten erdiets dezaketela. Horretarako, Herriko Etxera jin beharko dute, eta, aparkatze frogagiriak erakutsiz gero, eskaera orria zigor markatuko zaie.

Apartamenduetan diren ur-onen ibiltariendako aste bateko prezioa 300 euro ingurukoa da, eta, beraz, egonaldi osoko prezioa 800 eta 1000 euroren artekoa da. Karabanetan direnendako, berriz, egonaldiaren prezioa 210 eurokoa izanen da.

Gréoux Les Bains herrian, hogeita hamar mila kurista hartzen dituen ur herrian, karabanendako 80 leku badira. Lehen urtean karabanendako prezio bat finkatu zuten, baina, horren kudeatzea arras konplikatuak izan zen. Karabanen bidaiatzen dutenak arras ongi antolatutako jendeak dira. Oztopo-zutoinera heltzen direlarik, kuristak direla erran dezakete. Hogeita bat egunendako ordaintzen dute, eta, gero, txartelak beste karabana bidaiariei ematen dizkiete.

Donibane Garazin prezioa doi bat apalagoa da, 8 eurokoa edo, baina, ez dute karabana guztiendako elektrizitaterik. Aldiz, Frantziako hego-ekialdean, prezioak 13 eta 15 euroren artekoak dira, eta, uda sasoiaren oraindik gorago.

Auzapez jaunak beti marmarika ariko diren pertsonak izanen direla gehitzen du. Prezioa zuzena dela uste du. Erabakia helburu horrekin hartua izan zen eta berdin segituko du.

- Michelena jaunak karabanendako guneari dagokion esku orria ikusi du. Euskaraz hitz batzuk badira. Izenburuaren euskarazko itzulpenak, « camping harrera inguruan autoak », ez du fitsik erran nahi, ez Euskal Herri osoan, ez diasporan ere. Ez du nehorik ulertuko. Halako itzulpenen interesa zein den ez du ulertzen. Hego Euskal Herriko jendea jiten baldin bada ere, azalpen guztiak frantsesez dira. Izenburua bakarrik euskaraz ezartzeak ez du balio. Halako gauzen egitea baino, hobe deus ez egitea. Hobekuntza kontratuan sartu ordez, gibelera egitea da.

Itzulpen hori Herri Elkargoko itzulpen zerbitzuak egin duela ihardesten dio Irastorza jaunak.

Bururatzeko, uztailean eta abuztuan Herriko kontseilurik ez dela izanen jakinarazten du Auzapez jaunak. Uda bikaina iragatea desiratzen die denei, Kanbon, bistan dena.

21:20etan, Auzapez jaunak Herriko kontseiluaren bilkurari bururapena ematea erabakitzen du.